EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO




# Enpleguaren Euskal Estrategia 2020
# Estrategia Vasca de Empleo 2020

## Partaidetzaren memoria

2016ko ekaina

# Aurkibidea


| ATALA | Or. |
|---|---|
| **1. Garatutako partaidetza-ereduaren ikuspegi orokorra** | **3** |
| **2.  Erabilitako partaidetza-baliabideen xehetasuna** | **6** |
| **ERANSKINAK** | **21** |
| 1. eranskina: Diagnosiaren kontrastearen emaitzak | 22 |
| 2. eranskina: Gidalerroen kontrastearen emaitzak | 29 |




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# 1 Garatutako partaidetza-ereduaren ikuspegi orokorra

# Eragileen partaidetza-eredua

Enpleguaren euskal estrategia 2020 definitzeko prozesua hausnarketa kolektibo gisa sortu zen eta partaidetza sozial maximoa sustatzen saiatu da; aintzat hartuz, enpleguarekin harreman zuzenagoa duten Eusko Jaurlaritzako hainbat sail eta Euskadiko enpleguan eragina duten kanpo-eragileak.

Eragileek lan-prozesu osoan zehar hartu dute parte, egoeraren Diagnosiaren garapen eta Estrategiaren diseinu faseetan ere, hainbat partaidetza metodo edo baliabide bateratuz. Jarraian, garatutako partaidetza ereduaren ikuspegi orokorra atxiki da.

## PARTAIDETZA EREDUAREN IKUSPEGI OROKORRA

**PARTAIDETZAREN IRISMENA**

### EGOERAREN DIAGNOSIA GAUZATZEA

**Partaidetzaren helburuak:**

- Egungo enpleguaren arloko egoera aztertzea
- Informazio-iturriak edo dokumentu garrantzitsuak identifikatzea
- Diagnosiaren edukiak kontrastatzea eta balioztatzea

### ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIAREN DISEINUA

**Partaidetzaren helburuak:**

- Enpleguaren arloan etorkizuneko aukeren ikuspegia lortzea
- Estrategiaren gidalerro, ardatz eta erronkak kontrastatze eta adostea

**PARTAIDETZA BALIABIDEAK**

- Elkarrizketa Sozialerako Mahai Teknikoa
- Sailarteko Batzordea
- Bilerak Eusko Jaurlaritzako sailekin
- Bilerak kanpo-eragileekin
- World Café jardunaldia
- Kontraste galdetegiak

# Prozesuaren egutegia

**2016ko urtarrila**

- Aurretiko bilerak Enplegu eta Lan Sailburuordetzaren zuzendaritza-taldearekin, egin beharreko lanak planifikatzeko eta parte-hartze eredua zehazteko.

**2016ko otsaila**

- Sailarteko Batzordea sortzea.
- Estrategia gauzatzeko prozesua abiaraztea Sailarteko Batzordearekin.
- Banakako bilerak Gizarte Eztabaidarako Mahai Teknikoko eragileekin.
- Banakako bilerak Eusko Jaurlaritzaren sailekin/sailburuordetzekin.
- Banakako bilerak kanpoko eragileekin.
- Etengabeko harremana/bilerak Enplegu eta Lan Sailburuordetzaren zuzendaritza-taldearekin.

**2016ko martxoa**

- Erkatze-bilera egitea eta Sailarteko Batzordearekin diagnostikoa balioztatzea.
- Diagnostikoa balioztatzeko bilera Gizarte Eztabaidarako Mahai Teknikoarekin.
- Etengabeko harremana/bilerak Enplegu eta Lan Sailburuordetzaren zuzendaritza-taldearekin.
- Banakako bilerak kanpoko eragileekin.
- World Café jardunaldirako deialdia.
- Diagnostikoaren aurreko erkatze-galdetegia igortzea World Café jardunaldira gonbidatutako eragileei eta ekarpenak biltzea.

**2016ko apirila**

- World Café jardunaldia.
- Bilerak Enplegu eta Lan Sailburuordetzaren zuzendaritza-taldearekin.
- Ildo nagusiei buruzko erkatze-galdetegiak igortzea World Café jardunaldira gonbidatutako eragileei.

**2016 maiatza**

- Ildo nagusiei buruzko erkatze-galdetegiaren ekarpenak biltzea eta aztertzea.
- Estrategiaren behin betiko agiria onesteko bilera Sailarteko Batzordearekin.
- Estrategiaren behin betiko agiria erkatzeko eta onesteko bilera Gizarte Eztabaidarako Mahai Teknikoarekin.
- Etengabeko harremana/bilerak Enplegu eta Lan Sailburuordetzaren zuzendaritza-taldearekin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# 2 Erabilitako partaidetza baliabideen xehetasuna

# Elkarrizketa Sozialerako Mahai Teknikoa

Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Hirualdeko Mahai Teknikoak zeregin oso garrantzitsua bete du lan-prozesu osoan zehar; izan ere, Jaurlaritzak, Enpleguaren Euskal Estrategia Elkarrizketa Sozialerako Mahai Teknikoan adostu zuen.

**ZEREGINA**

- Egungo egoera aztertzea eta enpleguaren etorkizunerako aukerak kontuan hartzea.
- Egoeraren diagnosia balioztatzea.
- Enplegurako Euskal Estrategiaren amaierako dokumentua balioztatzea.

**PARTAIDETZAREN XEHETASUNA**

| MUGARRIAK | PARTAIDETZAREN METODOLOGIA | DATAK |
|---|---|---|
| **Egungo egoera azterketa + etorkizunerako aukerak kontuan hartzea** | Lan bilera indibidualak Elkarrizketa Sozialerako Mahai Teknikoko eragileekin. Aldez aurretik gidoi-galdetegi bat bidaliko zaie. | Bileren egutegiaren xehetasuna hurrengo orrialdeko taulan dago ikusgai. |
| **Egoeraren diagnosia balioztatzea + ekarpenak jasotzea** | Bilera espezifikoa Elkarrizketa Sozialerako Mahai Teknikoarekin | 2016-03-17 |
| **Estrategiaren amaierako dokumentua balioztatzea** | Bilera espezifikoa Elkarrizketa Sozialerako Mahai Teknikoarekin | 2016-05-26 |

Gainera, Elkarrizketa Sozialerako Mahai Teknikoko eragileek World Café jardunaldiaren aurretiko egoeraren diagnosiaren kontrastean, World Café jardunaldian eta gidalerroen ondorengo kontrastean hartu dute parte.

## LAN-BILERA INDIBIDUALEN EGUTEGIAREN XEHETASUNA

| ELKARRIZKETA SOZIALERAKO MAHAI TEKNIKOKO ERAGILEAK | DATAK |
|---|---|
| **Confebask** | 2016-02-11 |
| **CCOO** | 2016-02-12 |
| **UGT** | 2016-02-12 |

# Sailarteko Batzordea

Sailarteko Batzordea 2016-02-02an eginiko Jaurlaritzaren Kontseiluaren bilkuran sortu zen, Enplegurako Euskal Estrategia gauzatzeko lanak koordinatzeko. Honako Sailburuordetza hauek osatzen dute Batzordea: Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuna; Industria; Enplegua eta Lana; Ekonomia eta Aurrekontuak; Funtzio Publikoa; Lanbide Heziketa; eta Lanbideko Zuzendaritza Nagusia; guztiak Lehendakaritzako idazkari nagusiaren koordinaziopean.

**ZEREGINA**

- Estrategiaren diagnosi- eta diseinu-prozesu osoan hartu du parte. Prozesuaren sustapena onetsi du eta egindako lan guztien garapen, kontraste eta balioztatzean funtsezko zeregina bete du.

**PARTAIDETZAREN XEHETASUNA**

| MUGARRIAK | PARTAIDETZAREN METODOLOGIA | DATAK |
|---|---|---|
| **Estrategiaren gauzatze-prozesua sustatzea** | Sustapen-bilera | 2016-02-05 |
| **Egoera-diagnosia kontrastatzea eta balioztatzea** | Lan-bilera | 2016-03-07 |
| **Estrategia kontrastatzea eta balioztatzea** | Lan-bilera | 2016-05-12 |



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Bilerak Eusko Jaurlaritzako sailekin

Eusko Jaurlaritzako sailekin egin diren bilerak, Eusko Jaurlaritzako baterako estrategiaren ikuspuntutik planteatu ziren. Estrategia hori Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu zuen, eta enpleguaren arloarekin harreman zuzenagoa duten sailburuordetza edo sailen inplikazio eta adostasuna izango ditu.

Bilerak hainbat sailburuodertzetako sailekin egin ziren, hala nola, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuna; Industria; Enplegua eta Lana; Ekonomia eta Aurrekontuak; Funtzio Publikoa; Lanbide Heziketa; eta Unibertsitate eta Ikerketa. Halaber, bilerak egin ziren Lanbiderekin ere (Zuzendaritza Taldea eta Kabinete Teknikoa).

**ZEREGINA**

- Egungo egoera aztertzea eta enpleguaren etorkizunerako aukerak kontuan hartzea.
- Enpleguaren arloko informazio-iturriak eta dokumentu garrantzitsuak identifikatzea.

**PARTAIDETZAREN XEHETASUNA**

| MUGARRIAK | PARTAIDETZAREN METODOLOGIA | DATAK |
|---|---|---|
| **Egungo egoera aztertzea + etorkizunerako aukerak kontuan hartzea + informazio-iturriak identifikatzea** | Lan-bilera indibidualak. Aldez aurretik gidoi-galdetegi bat bidaliko zaie. | Bileren egutegiaren xehetasuna hurrengo orrialdeko taulan dago ikusgai. |

Gainera, Eusko Jaurlaritzako sailek World Café jardunaldiaren aurretiko egoeraren diagnosiaren kontrastean, World Café jardunaldian eta gidalerroen ondorengo kontrastean hartu dute parte.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## LAN-BILERA INDIBIDUALEN EGUTEGIAREN XEHETASUNA

| SAILBURUORDETZAK/SAILAK | DATAK |
|---|---|
| **Ekonomia eta Aurrekontu Sailburuordetza** | 2016-02-10 |
| **Lanbideko Zuzendaritza** | 2016-02-11 |
| **Lanbide Heziketako Sailburuordetza** | 2016-02-15 |
| **Funtzio Publikoko Sailburuordetza** | 2016-02-16 |
| **Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuordetza** | 2016-02-23 |
| **Ekintzailetza, Berrikuntza eta Informazioaren Gizartearen Saila – Euskadiko Agenda Digitala** | 2016-02-23 |
| **Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza** | 2016-02-23 |
| **Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza** | 2016-02-29 |
| **Industria Sailburuordetza** | 2016-02-29 |
| **Lanbideko Kabinete Teknikoa + Ekonomiako Zuzendaritza** | 2016-02-29 |

*Gainera, Enplegu eta Lan Sailburuordetzarekin harremanetan egon gara etengabe; Laneko, Gizarte Ekonomiako eta Osalaneko Zuzendaritzak barne.*

# Bilerak kanpo-eragileekin

Gainera, lan-bilerak egin ziren kanpo-eragile batzuekin, aintzat hartuz enpleguari eta lan-merkatuari buruz duten ikuspegi integrala eta Euskadiko enpresa-sarean duten ordezkagarritasuna.

**ZEREGINA**

- Egungo egoera aztertzea eta enpleguaren etorkizunerako aukerak kontuan hartzea.
- Enpleguaren arloko informazio-iturriak eta dokumentu garrantzitsuak identifikatzea.

**PARTAIDETZAREN XEHETASUNA**

| MUGARRIAK | PARTAIDETZAREN METODOLOGIA | DATAK |
|---|---|---|
| **Egungo egoera aztertzea + etorkizunerako aukerak kontuan hartzea + informazio-iturriak identifikatzea** | Lan-bilera indibidualak. Aldez aurretik gidoi-galdetegi bat bidaliko zaie. | Bileren egutegiaren xehetasuna hurrengo orrialdeko taulan dago ikusgai. |

Gainera, eragileek World Café jardunaldiaren aurretiko egoeraren diagnosiaren kontrastean, World Café jardunaldian eta gidalerroen ondorengo kontrastean hartu dute parte.

## LAN-BILERA INDIBIDUALEN EGUTEGIAREN XEHETASUNA

| KANPO-ERAGILEAK | DATA |
|---|---|
| **ADEGI** | 2016-02-15 |
| **CEBEK** | 2016-02-22 |
| **SEA** | 2016-02-29 |
| **ASLE** | 2016-03-22 |
| **ERKIDE (Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioa)** | 2016-02-23 |

# World Café jardunaldia

Ahalik eta partaidetza sozial handiena lortzeko asmoz, World Café lanaldi bat antolatzea adostu zen. Jardunaldi horretan parte hartzeko gonbita inplikatuta dauden Eusko Jaurlaritzako sailei eta partaidetutako enpresei, Elkarrizketa Sozialerako Mahai Teknikoko eragile indibidualei eta bileretan parte hartu zuten kanpo-eragileei ere luzatu zitzaien.

Aurretiko pauso gisa, enpleguaren arloarekin harremana duten eragile instituzional, ekonomiko eta sozialen zerrenda bat gauzatu zen, aintzat hartuz garatzen duten jarduera eta lan-merkatuko errealitatea ezagutzen dutela. Horrela, honako eragile-tipologia hauek zehaztu ziren:

- Tokiko eta/edo lurraldeko erakundeak (Foru Aldundiak, Tokiko Garapenerako Agentziak, …).
- Erakunde sindikalak.
- Enpresa-elkarteak.
- Sektore-elkarteak eta klusterrak.
- Gizarte-ekonomia eta hirugarren sektoreko erakundeak.
- Lanbide Heziketako ikastegiak.
- Unibertsitateak.
- Bestelako elkarte edo erakundeak.
- Eusko Jaurlaritza eta partaidetutako enpresak.

**ZEREGINA**

- Lan-dinamika bateratu eta parte-hartzailea ezartzea.
- Egoeraren diagnosia kontrastatzea.
- Enpleguaren arloko eragileen etorkizunerako aukeren ikuspegia lortzea.
- Estrategiarako gidalerroen proposamenak identifikatzea.

**PARTAIDETZAREN XEHETASUNA**

- World Café jardunaldia Euskalduna Jauregian egin zen apirilaren 13an, goizean.
- Eragileei, deialdia egiteko, hasierako gonbidapen bat bidali zitzaien, posta arruntez eta posta elektronikoz, 2016-03-10ean. Lehenbiziko deialdi horren bidez jardunaldiaren data eta eduki orokorrak jakinarazi ziren.
- Ondoren, 2016-03-30ean, bigarren deialdi bat bidali zitzaien, honako eduki hauekin:
  - Jardunaldiaren programa.
  - Izena emateko inprimaki ofiziala; bertan, parte hartu nahi zen lan-mahaiaren gaiak lehenesteko aukera zegoen.
  - Jardunaldiaren aurretik beharrezkoa zen dokumentazioa: egoeraren diagnosi-txostena (dokumentu nagusia + eranskina) eta aldez aurreko kontraste-galdetegi bat.
- World Café jardunaldian 86 pertsonek hartu zuten parte, 53 eragileen ordezkari gisa. Hurrengo orrialdean, parte hartu zuten eragileen xehetasuna ikus daiteke.
- Jardunaldiaren ondoren, 2016-04-27an, deitutako eragileei gidalerroei buruzko kontraste galdetegi bat bidali zitzaien.

## WORLD CAFÉ JARDUNALDIKO ERAGILE PARTE-HARTZAILEEN XEHETASUNA

| TIPOLOGIA | ERAGILEAK | | Partaide kop. |
|---|---|---|---|
| Tokiko eta/edo lurraldeko erakundeak | 1 | ARABAKO FORU ALDUNDIA | 1 |
| | 2 | BIZKAIKO FORU ALDUNDIA | 2 |
| | 3 | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | 1 |
| | 4 | GARAPEN, GARAPENERAKO AGENTZIEN EUSKAL ELKARTEA | 2 |
| | 5 | BILBOKO UDALA | 1 |
| Erakunde sindikalak | 6 | EUSKADIKO CCOO | 2 |
| | 7 | UGT EUSKADI | 2 |
| Enpresa-elkarteak | 8 | CONFEBASK | 3 |
| | 9 | ADEGI | 1 |
| | 10 | SEA ARABAKO ENPRESARIAK | 1 |
| | 11 | ASLE | 3 |
| | 12 | BILBOKO MERKATARITZA GANBERA | 2 |
| | 13 | GIPUZKOAKO BAZKUNDEA | 1 |
| | 14 | BILBAO EKINTZA, EPEL | 1 |
| | 15 | AED. BIZKAIKO EMAKUMEZKO ENPRESARI ETA ZUZENDARIEN ELKARTEA | 1 |
| | 16 | AMPEA | 2 |
| | 17 | AVA-ATA EUSKADI, EUSKAL AUTONOMOEN ELKARTEA | 1 |
| | 18 | KONFEKOOP | 1 |
| Sektore-elkarteak eta klusterrak | 19 | ACICAE | 1 |
| | 20 | BASQUE BIOCLUSTER | 1 |
| | 21 | EUSKAL HERRIKO ITSAS FOROA | 1 |
| | 22 | GAIA – TEIC KLUSTERRA | 2 |
| | 23 | HEGAN | 1 |
| | 24 | AFM | 1 |



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

| TIPOLOGIA | ERAGILEAK | | Partaide kop. |
|---|---|---|---|
| Gizarte-ekonomia eta hirugarren sektoreko erakundeak | 25 | BEREZILAN | 1 |
| | 26 | EAPN EUSKADI | 1 |
| | 27 | EHLABE | 2 |
| | 28 | ELKARTEAN | 1 |
| | 29 | FUNDACION EDE / EDE FUNDAZIOA | 1 |
| | 30 | GIZATEA | 1 |
| | 31 | REAS EUSKADI | 1 |
| Lanbide Heziketako ikastegiak | 32 | ACADE | 2 |
| | 33 | AICE-IZEA | 1 |
| | 34 | HETEL | 1 |
| | 35 | HOBETUZ | 1 |
| | 36 | IKASLAN ARABA | 1 |
| | 37 | IKASLAN BIZKAIA | 1 |
| | 38 | IKASLAN GIPUZKOA | 2 |
| | 39 | IMH | 1 |
| Unibertsitateak | 40 | MONDRAGON UNIBERTSITATEA - ENPRESAGINTZA FAKULKTATEA | 2 |
| | 41 | DEUSTUKO UNIBERTSITATEA | 1 |
| | 42 | EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA | 1 |

| TIPOLOGIA | ERAGILEAK | | Partaide kop. |
|---|---|---|---|
| Bestelako elkarte eta erakundeak | 43 | EUSKADIKO LAN HARREMANEN KONTSEILUA (CRL-LHK) | 1 |
| | 44 | EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETAKO BATZORDEA (CES-EGAB) | 1 |
| | 45 | EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTEILUA - EGK | 2 |
| | 46 | NOVIA SALCEDO FUNDAZIOA | 2 |
| | 47 | INNOBASQUE | 1 |
| | 48 | ORKESTRA - BASQUE INSTITUTE OF COMPETITIVENESS | 1 |
| | 49 | ARARTEKO | 1 |
| | 50 | TECNALIA RESEARCH & INNOVATION | 1 |
| Eusko Jaurlaritza eta partaidetutako enpresak | 51 | EUSKO JAURLARITZA | 15 |
| | 52 | LANBIDE | 3 |
| | 53 | EMAKUNDE | 1 |
| **GUZTIRA** | | | **86** |

# JARDUNALDIAREN LABURPENA IRUDIEN BIDEZ

**LAN-JARDUNALDIA (WORLD CAFÉ)**
**2020ko EUSKAL ENPLEGU ESTRATEGIA GAUZATZEKO**

10:15 **Partaideen akreditazioa eta harrera.**

10:30 **Aurkezpena: Lan-jardunaldia (world café), 2020ko Euskal Enplegu Estrategia gauzatzeko.**

- Ángel Toña, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

10:45 **Enplegu-prospektiba 2020ko Europan eta Euskadin**



Ignacio González-Vázquez, Europako Kontseiluko Enpleguaren, Gizarte Gaien, Gaitasunen eta Mugikortasunaren arloko Zuzendaritza Nagusiaren *policy officer*-a.

*Hitzaldia: 2020ko Europako Enplegu Estrategia eta prestakuntza berrien aurreikuspena.*



Juan José Goñi, Aldaketaren, Berrikuntza Sozialaren eta Pertsonen arloko aholkulari espezialista. EHUko graduondoko ikasketetako irakaslea. APTES Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkarteko idazkaria eta Novia Salcedo Fundazioko Ícaro think tank-eko kidea.

*Hitzaldia: Gizarte digitala eta laugarren iraultza sozioekonomikoa. Lan- eta enplegu-aukerak eta ondorioak geoekonomia-, antolakuntza- eta gizarte-mailan.*

12:00 **Atsedena (kafea)**

12:15 **WORLD CAFÉ**

12:15-13:30: **Lan-mahaiak**

13:30-14:00: **Mahaien ondorioen aurkezpena**

14:00 **Itxiera**

- José Andrés Blasco, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Lan sailburuordea.













# Kontraste galdetegiak

World Café jardunaldiaren osagarri gisa eta partaidetza eta elkarlan soziala sustatzeko, bi galdetegi diseinatu ziren jardunaldian parte hartzera deitutako eragileen ekarpenak jasotzeko eta informazioa kontrastatzeko.

Lehenengo galdetegiaren helburua jardunaldiaren aurretiko egoeraren diagnosiaren kontrastea gauzatzea izan zen; ondoren, emaitzak Worl Café jardunaldiaren barnean ezagutarazi ziren. Bigarren galdetegia jardunaldiaren ostean bidali zen eta horren xedea estrategiaren gidalerroak kontrastatzea izan zen.

**ZEREGINA**

- Egoeraren diagnosia kontrastatzea eta hobetzeko proposamenak identifikatzea.
- Estrategiaren gidalerroak kontrastatzea eta bestelako alderdi garrantzitsuak identifikatzea.

**PARTAIDETZAREN XEHETASUNA**

| MUGARRIAK | PARTAIDETZAREN METODOLOGIA | BIDALKETA-ITXIERA DATAK |
|---|---|---|
| **Egoeraren diagnosiaren aurreko kontrastea** | On-line galdetegia | 2016-03-30etik 2016-04-06ra |
| **Estrategiaren gidalerroen kontrastea** | On-line galdetegia | 2016-04-27tik 2016-05-03ra |

Oharra: Galdetegiak jardunaldira gonbidatu ziren pertsona eta/edo eragile guztiei bidali zitzaizkien, pertsona edo eragile horiek azkenean jardunaldira bertaratu ziren edo ez kontuan hartu gabe. Pertsona eta/edo eragile batzuek ezin etorria adierazi zuten eta, hala ere, galdetegi bat edo biak bete zituzten.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# A Eranskinak

# A.1 1. eranskina: Diagnostikoaren kontrastearen emaitzak

# Euskal lan-merkatuak eta lan-merkatu horretan nabarmen eragiten duten sistemek gaur egun duten barne-egoerari buruzko ondorioak

## Egoera positiboa






EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Tarteko egoera






EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Egoera negatiboa






EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## Aukera garbia



# Zalantzazko elementua



# Arrisku edo mehatxu garbia



# A.2 2. eranskina: Gidalerroen kontrastearen emaitzak

# A ARDATZA - Aktibazioa

## *Valoración media de la contribución de las Directrices a dar respuesta cada uno de los Ejes de la Estrategia*

*(Valoración media de cada Directriz en una escala de 1-Nada a 4-Mucho)*



## *Gidalerroak zenbateraino diren baliagarriak Estrategiaren Ardatz bakoitzari erantzuteko batez besteko balorazioa*

*(Gidalerro bakoitzari emandako batez-besteko balorazioa, 1-Gutxi eta 4-Asko bitarteko eskalan)*



## *Gidalerroak zenbateraino diren baliagarriak Estrategiaren Ardatz bakoitzari erantzuteko batez besteko balorazioa*

*(Gidalerro bakoitzari emandako batez-besteko balorazioa, 1-Gutxi eta 4-Asko bitarteko eskalan)*






EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## Gidalerroak zenbateraino diren baliagarriak Estrategiaren Ardatz bakoitzari erantzuteko batez besteko balorazioa

*(Gidalerro bakoitzari emandako batez-besteko balorazioa, 1-Gutxi eta 4-Asko bitarteko eskalan)*



## *Gidalerroak zenbateraino diren baliagarriak Estrategiaren Ardatz bakoitzari erantzuteko batez besteko balorazioa*

*(Gidalerro bakoitzari emandako batez-besteko balorazioa, 1-Gutxi eta 4-Asko bitarteko eskalan)*



## *Gidalerroak zenbateraino diren baliagarriak Estrategiaren Ardatz bakoitzari erantzuteko batez besteko balorazioa*

*(Gidalerro bakoitzari emandako batez-besteko balorazioa, 1-Gutxi eta 4-Asko bitarteko eskalan)*






EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# E ARDATZA - Kalitatezko Enplegua

## *Gidalerroak zenbateraino diren baliagarriak Estrategiaren Ardatz bakoitzari erantzuteko batez besteko balorazioa*

*(Gidalerro bakoitzari emandako batez-besteko balorazioa, 1-Gutxi eta 4-Asko bitarteko eskalan)*



# F ARDATZA - Baliozko zerbitzuak emango dituen Euskal Enplegu Sistema eraginkorra

***Gidalerroak zenbateraino diren baliagarriak Estrategiaren Ardatz bakoitzari erantzuteko batez besteko balorazioa***

*(Gidalerro bakoitzari emandako batez-besteko balorazioa, 1-Gutxi eta 4-Asko bitarteko eskalan)*

